

Itxaro Borda

## Ultima ratio

G

oizetan lanera noanean zubia zeharkatzen dut eta Santizpiritun sartzean Jehovaren Lekukoak beraien paper eta aldizkariak banatzen kukuskatzen ditut. Ez diet sorik hedatzen, den-mendreneko begirada dei antzera interpreta dezaten beldurrez. Barne-tragedia zantzuren baten aiduru daude solasean hasteko eta 2012ko apokalipsia iragarriaren karietara infernuko suan nola kiskailduko garen *a+bez* azaltzeko, Bibliako erakaspak aitzakian. Horien elasturiak entzun baino nahiago nuke oraino Axularren *Guero* osoan etengabe irakurtzera gaztigatu nazaten.

Gauetz zinematik natorrenean predikari islamista bizardunen itzaletarik gordetzen naiz. Hauek ere 2012rako apokalipsia hitz ematen dute bereziki buruak estalirik ez dituzten neska gazte eta andere zohituei. Larunbat arratsaldeetan aldiz, Baionako karriketarik *shopping* egiten nabilenean, ez dut deusen premiarik, sotanaz apaindu apezpikuaren zaindaritza hurbileko apez zainartak ikusten ditut, soldaduen moduan herrokan jendetzak urratzen dituztela. Mormoi hirukoteak eta aurpegi hitseko ebangelista bik liburu saildua gora datxikate. Urrunago azkenik *bonze* arropetan jantzirikoek lore zimelak aurtikitzen dizkigute ahots mehakoilez mantra lan-zinanteak errepikatuz.

2012ko apokalipsia bertan daukagu. Eliza mota guztiak, bai eta sektak, hagin kurruskaz doaz, pagano eta bekatorosen hondar orenak leuntzeko. Izerdi. Hatsanka. Perpausak aho-sabaietan kuskatzen zaizkie eta ezpainetan behera konbentzitzen lekeda berdaska darie. Egunero-kotasun *gore* batean bainatzen gabela dirudi, zerrendatzen baldin baditugu bestaldeko munduko ezbehar larrienak, bankuek eragin krisia adibidez, edo pobreen bizirauteko gutizia nazkagarria eta Haitiko lur-ikara izugarria, bakerik nehoiz ez dukegula argi dago. Telebistek



GAIZKA IROZ

karia horretara diru-laguntza txapelketa moduko bat antolatu zuten, arrats apal-letan milioiak milioiei gehitzen zitzaizkien zenbakiak eskainiz. Urrikia behintzat eurotan konberti dezagula, guhaur konbertitzen ez baldin bagara.

“Diru zakarrak bihotzik ez du” abesten genuen aspaldi, zintzurrek oihar ahala, baina baditu mutil-sehi itsuak nasaiki. Gure arimak fede-multinazionalen gerra-zelai bihurtu dira. Erljioak enkantean zinpuritzen dira: nor aurtiki-ko debekurik gogorrena, anatemarik hertsizaleena, larderiarik handiena, emazteen aurkako gorrotorik distiratsuen, emeak baitira zinez fedegitura haboroxienetsai deabrutuak. Eta botere politikoak belauniko datxikate, elizek joko koerzitibo baliosa eramaten dutelako, merke. Fedearena, merkatu neoliberal bat gehiago da. Lege iniko eta

logika aseko berdinarekin. Bidenabar igurika dezagun zeinek digun ate ilunen sekretuan proposamen hobereena eginen, gaixotzen gaituzten balizko erruduntasunen aurkako segurantzarik egokiena eskura jarriko, afektiboki errazena halaber, ez baitugu sufrantza latzegietan higitzeko denborarik.

Aztekarren berrogeita hamabiko urte zikloaren arabera 2012an apokalipsiaren desordenuak pairatuko ditugu. Frantzia lehendakari hauteskundeak dirateke orduan. Eliseoan aterbetzen dena apokalipsiaren zazpi aingeru malefikoetarik bat denez galdezka nabil Santizpiritu zubia trabeskatzean. Betazalak apaltzen ditut ez baitu erantzunik eta ez nuke gustuko fede-tratulariek ene dudak zula ditzaten. *Sumisio gider* itzela baita zalantza haientzat, bizidunak apalesteke. Populuen opioaren keetarik doi-doia askatu eta berriz harapatzen gaituzte integrismo ugarien xederetan. Kontsumismo hutsalaren aztaparrari esker.

*Vade retro ultima ratio...* ■

2012ko apokalipsia bertan daukagu.

Eliza mota guztiak, bai eta sektak, hagin

kurruskaz doaz, pagano eta bekatorosen

hondar orenak leuntzeko. Izerdi. Hatsanka.

Perpausak aho-sabaietan kuskatzen zaizkie

eta ezpainetan behera konbentzitzen

lekeda berdaska darie